



AIHERRA-ANTZUOLA hitzarmena

Aiherra, 2014ko urriaren 25a



Antzuola, 2014ko azaroaren 22an

"Batak bestearen ganik ikasteko gogoarekin eta elkar ulertzearen bidetik, azken 30 urte hauetako adiskidetasunezko loturei jarraipen bat emanez, gure bi herrien arteko elkartasunezko harremanak sakontzeko eta finkatzeko nahia adierazten dugu hitzarmen honen bidez.

Gisa berean, kultura eta euskarari diogun atxikimendua kontutan harturik, bi herrien errealitate desberdinen artean loturak indartzeko eta, geroan elgarren arteko helburuak eta ekintzak programatzeko eta antolatzeko nahiarekin bideratzen da hitzarmen hau.

Gure inguruan badira zonbeit herri gureak bezalakoak, anaikidetza edo adiskidetasunezko loturen lekuko direnak. Antzuola eta Aiherraren arteko harremana berezia da, herritarrek sustatu harremana baita, herritik sortua eta azkartua. Hauxe da gure altxorra oraino luzaz bizi dadin nahi genukeena.

30 urte hauetan, belaunaldiz belaunaldi, herritar eta hautetsi andana bat, horren lekuko izan gara eta harreman honek zinez aberastu gaituela ezin uka.

Euskal-Herri bereko seme-alabak gara, hizkuntza beraren jabe, elkarrekin proiektuak gauzatu nahi ditugunak.

Oraidanik Udabiltza Instituzioaren laguntzeko prest gara, Aiherrak eta Antzuolak urratu duten bidean beste zenbait herri ere abia daitezen.

Segur gaude elkartze ofizial honi jarraikiz, gure bi herrien bategiteari laguntzen diogula, adiskidetasunean, tolerantzian eta elkarren ganako errespetuan."

Arñó Gastambide
(Aiherrako Auzapeza)



Inma Beristain
(Antzuolako Alkatea)





Convention de Jumelage entre AIHERRA et ANTZUOLA

Ayherre, le 25 octobre 2014



Antzuola, le 22 novembre 2014

"Par cet acte, nous voulons exprimer la volonté qui est la nôtre de renforcer et officialiser les liens unissant nos deux communes depuis 30 ans.

Dans le même esprit, forts de l'attachement à notre culture et à l'euskara, nous signons cette convention avec la volonté d'une part, de renforcer les liens culturels entre nos deux communes aux réalités différentes, et d'autre part, de fixer des objectifs et de programmer dans le futur des actions en commun.

D'autres jumelages tels que le nôtre existent dans notre entourage, mais celui liant Ayherre et Antzuola est particulier car il est né de la volonté des villageois et est fondé sur des relations d'amitié. Ceci est notre trésor, que nous tenons à préserver.

Durant ces 30 années, de génération en génération, de nombreux villageois et élus en ont été les témoins et se sont enrichis de cette relation.

Nous sommes les enfants d'un même Pays Basque, parlant une même langue, l'euskara, et qui voulons naturellement réaliser des projets ensemble.

Dès à présent, nous nous tenons prêts à encourager, l'Institution Udabiltza afin que d'autres communes suivent le chemin tracé par Ayherre et Antzuola.

Nous sommes convaincus que la poursuite de ces échanges officiels contribuera à l'union de nos deux communes, dans l'amitié, la tolérance et le respect mutuel".

Arño Gastambide
(Maire d'Ayherre)



Inma Beristain
(Maire d'Antzuola)

